

KONTROL MOZIOA

DONOSTIAKO UDAL PORTU KONTSEILUAN KAIKO BIZILAGUNEK LEHENTASUNEZ PARTE-HARTU AHAL IZATEARI BURUZKOA

Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko apirileko Lurralde Garapenerako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak Donostiako kaia Kultura Ondasun kalifikatzeko dekretua onartu zuen 2019ko apirilaren 16an, Monumentu Multzok kategorian. Aipatu babes-espedientearen xedea ingurunearen morfologia kontserbatzea eta, era berean, bertako “biztanleen beharren kudeaketa malgutzea” zela adieraztean. Hau da, dekretua kontserbazioaren eta beharren arteko oreka bermatzeko bitartekoa izango zen.

Argi dago, ordea, dekretu hori onartu zenetik hartutako erabaki gehienek, guztiek ez bada, kontrako eragina izan dutela, lehendik zeuden desoreketan sakonduz eta berriak sortuz. Erakundeen ardura da kaiaren erabilera arautzea, hau da, segurtasuna eta, batez ere, elkarbizitza bermatzea, guztiok kaiaz gozatzeko aukera izan dezagun. Baina gaur egun indarrean dagoen araudia helburu hori lortzetik oso urrun dago; aitzitik, azken urteotan ezarritako neurriek giroa gaiztotu baino ez dute egin. Horren erakusgarri da 2022ko uztailaren 29an “Erabilera publiko baten alde, arrapalaren pribatizazioari ez” lelopean egindako mobilizazioa, kaiko eta Parte Zaharreko 15 eragile baino gehiagok bat egin zutena.

Horrez gain, Kaiko bizilagunek hainbat administrazioaren aurrean duten babesgabetasuna gai errepikakorra izan da azken urteotan. Azken aldiz kaiko etxebizitzetan zuntz optikoa sartu ez izanaren inguruan aritu ginen, 2023ko abenduko Udalbatzan lehenik, eta apirileko udal

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

batzordeetan gero. Hainbat gorabeheraren ondoren, zinegotzi ordezkariak adierazi zuen zuntz optikoaren afera ondobidean dagoela. Bizilagunek ere hala helarazi digute. Albiste pozgarria da, zalantzarik gabe. Hala ere, Donostiako kaiaren egoera berezia dela eta, gaur-gaurkoz ezin da ziurtatu aurrerantzean ez denik halako egoera berririk sortuko.

Donostiako kaian posible dira bizitza eta bizikidetzak, baina horretarako bizilagun, erabiltzaile, eragile eta, batez ere, erakundeen arteko hartu-emanak eta komunikazioa ahalbidetuko duten espazioak behar dira. Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuei eta Itsas Garraioari buruzko 2/2018 Legea helduleku izan daiteke. Izan ere, erakundeen eta gizarte-eragileen partaidetzari buruzko atalean (I. Kapituluko 4. artikulua) jasotzen da portuen arloko parte-hartze instituzionala eta soziala erregelamendu bidez sortuko diren kontsulta- eta partaidetza-organoen bidez gauzatuko dela. Horien artean daude Portuko Udal Kontseiluak.

Lege-testuaren arabera, batzorde edo kontseilu horietan, "administrazioez gain, portuen sektorean inplikaturik dauden sektore ekonomiko, profesional eta sozialek ere parte hartu ahal izango dute". Testuak, ordea, ez du aipatzen herritarrek edo bizilagunek kontseilu horietan parte hartzeko aukera dutenik, baina bereziki azpimarratzen da (ZIOEN AZALPENA, I. Kapituluari buruzkoa) EAEko "portu askoren hiri-izaera", eta, horri dagokionez, adierazten da Legea "portuko jardueraren eta portuetako udalerriri eta hirietako eguneroko jardueraren arteko ezinbesteko bizikidetzak baketsuan" oinarritzen dela. Bestela esanda, portuetako jardueraren eta zerbitzuen antolaketa eta kudeaketa bizikidetzak horretara bideratuta egongo dela. Bada, zalantzarik gabe, Donostiako kaiko egunerokoan bizilagunak subjektu garrantzitsuak dira, garrantzitsuenak ez esatearren.

Zinegotzi ordezkariak ongi adierazi zuen bezala, aipatu lege-testua urtarrilean jarri zen jendaurrean, eta alegazio epea amaituta, Udal Portu Kontseiluak eratzeko beharrezko txostena otsailean osatu zen. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa (EABJ) organoak hobetsi ondotik, 2024ko maiatzean sortu ahal izango da Donostiako Udal Portu Kontseilua. Presidentea Eusko Jaurlaritzako Portu eta Itsas Gaietarako zuzendaria bera izango da, eta idazkaria eta bokalak ere legeak ezartzen ditu. Hala ere, zinegotzi ordezkariak aurreratu bezala, kontseilukide izan gabe ere, ezinbestekotzat jotzen diren gaietan eta "bertan izatea komeni denean", lehendakariak legeak aurreikusi ez dituen eragileak bileran parte hartzera deitu ahal izango ditu, beti ere gainontzeko kontseilukideen oniritziarekin.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Esan bezala, Donostiako kaiaren kudeaketa egoki baterako, bertako bizilagunak subjektu garrantzitsuak dira. Ezinbestekoa da kaiko bizilagunek beren bizitokiaren gainean erakunde publikoek hartzen dituzten erabakietan parte hartu ahal izatea. Adostasun zabala dago horren inguruan, eta udal-gobernua osatzen duten bi alderdiek ere hainbatetan egin dute bizilagunen parte-hartzearen alde Udalbatza honetan.

Horregatik guztiarengatik, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA:**

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, behin Udal Portu Kontseilua eratzean, maiatzean bertan ahal izatekotan, kaiko bizilagunekin batera adostutako gaitegi eta lan-egutegi bat proposatu dezala lehen bileran.

Donostian, 2024ko apirilaren 19an

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga

EH Bildu udal taldeko zinegotzia